

Ez da sakratu, ez da ezer

Manifestu atzeratua poema luzeari tiraka sortu genuen *Aginako zero bat* ikuskizuna Jon Aranburuk, Marco Bianchik, Gaizka Amondarainek eta laurok, 2016an, eta tiraka diot, poema ezagutzen duenak jakingo duenez, baduelako nondik tira egin. Pentsamendua baitario testuari, eta ez pentsamendua bakarrik; literatura da, poesia da, eta nondik heldua ugari eskaintzen dio berarekin ‘zerbait’ egin nahi duenari. Pentsamenduak abiapuntu funtzioa duenean asebetetzen du, arazo bat ebazteko funtzioa duenean bezainbeste. Badakarrenean ezer esateko gogoa, ezer kontatzekoa.

Ikuskizunak poemari lotuta utzi gintuen, aurretik geundena baino areago. Ordura arte hor zegoen, ezinegon apur bat zuenak ezagutuko zuen, gauzak esango zizkion, gauza asko esango zizkion. Gu, ezinegon konstantean bizi ginenok (eta garenok, ausartzen naiz), esaten zizkigun gauzak ahoz gora esatera eramán gintuen testuak, eta, beraz, testua idatzi zuen Joxe Azurmendi gazte hark. Testuaz gain poema baita, eta poemaz gain, manifestua; eta manifestuak irakurri egin daitezke, demagun, leiho ondoko besaulki batean, uda beranduko arrats bateko azken argiarekin, edo, bestela, esan egin daitezke, demagun, gure kausaren abokatu-multzo baten aurrean.

Poema horrek ahotsa eskatzen du. Ozen irakurtzea, eta idatzitako bertso-lerro bakoitza behar den moduan esatea. Hori ez da erraza. Gernikako arbolaren kontra eta herriaren alde. Zein tempo erabilita esan kontra, kon-tra, edo alde, al-de. Nola esan, esateko asmoa duen horrek entzun duen moduan. *Manifestu atzeratua* irakurtzen duenak entzun ere egiten du. Beraz, nola esan, behar den bezala, barruan entzundako hori?

Poemaren barruan ideia bat entzuten da, behar den bezala esateko ez dena hain erraza. Edo Azurmendik esan zuen bezala esanda en-

tzun behar dena. *Manifestu atzeratua* idatzi eta berrogeita hamar urtera «Arrazoiketa teorikoak inportanteak geuretzat dira, gure posizioaren zergatikoa geuk garbi edukitzeko, baina kontrarioaren aurrean –hura konbentzitzeko edo– ez digute deus balio» idatzi zuenean entzuten den ideia berbera da. Batzuetan garbi eta zuzen aditzen da poeman, itzulingururik gabe; adibidez, gure engainu azkenekoaz ari denean, alegia, libre izan nahia justifikatu behar dugula pentsarazi digutela dioenean, edo libre izateko inoren baimenik ez dela behar dioenean. Beste batzuetan ere garbi entzuten da, eta zuzen, baina baita estetikoki itsaskor ere, gure jendea inpresionistek bakarrik pintatu dutela esaten duenean, edo eguna ez duela erlojuak egiten esaten duenean.

Baretu egiten du norbera ideia horrek. Zama kentzen dio gainetik. Komeni da noizean behin esan eta entzutea. Libre izan nahi duenak ez duela kondaira bat palanka modura erabili beharrik ohartzea, edo Gernikako arbola txeke zuri baten antzera asmatu digutela onartzea, edo foruak afaldu zizkigun hura eta umeak ekartzen dituen zikoina parean daudela atzematea, fundamentuzko kontzientzia politiko bat garatzeko funtsezko ideiarene osagaiak dira. Hori guztia idatzi eta handik berrogeita hamar urtera «zer axola dio Harri Aroz gero nazio bagara ere?» idatzi zuenari irakurri (entzun) dizkiogu, guk nahi beste alditan. 1968an goizeko ordu bietan idatzi zituen.

Aginako zero batetik pasa ondoren, zubiri-zubiri nongori-nongori, eta esandakoak entzun ondoren, euskarak zer behar duen baino, euskaldunok zer behar dugun galdetzeak zentzu gehiago dauka. Eta eskamak kentzen ari garela zergaragunorgaragu-ka eta euskotarrakgaragu-ka, galderaren kantu-zatiari begiratzen diogu gehiago, erantzunari baino. Eta hori horrela da, erantzuna garbi daukagulako.